

Euskaltzaleen Topaguneko esperientzia arrakastatsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren osagarritasuna

Jasone Mendizabal

Euskaltzaleen Topagunea

jmendizabal@topagunea.org

Laburpena. Topaguneak 2016ko urtarrilean euskaltzaleen aktibazioari buruz antolatutako Topaldirako prestatutako lanaren moldaketa da artikulu hau. Orduko izenburua mantendu dut lanean.

Topagunearen baitan izandako eskarmentuan oinarritu naiz lanerako eta euskaltzaleen mugimendua aktibatzeke herrietan zein nazio mailan arrakastarako gakoak izan daitezkeen horietan jarri nahi izan dut begia. Hiru ardatz baliatu ditut esperientzia arrakastatsuen analisirako: EGITEAren erakargarritasuna (gorputza), pentsamendu bizigarriak ERAGITEAren garrantzia (burua) eta horretan guztian jartzen den IZANA (bihotza). Tokiko eta nazio mailako ekimen eta dinamiken osagarritasunari dagokionez, Ken Wilberren teoria iradokitzailea iruditu zait tokiko mugimenduen integritatea eta nazio mailak eskaini beharko lukeen balio erantsia aztertzeke. Azken honi dagokionez, alde objetiboarekin batera, alde subjektiboarekin elikatu beharra, pertsonen eta eragileen arteko elkarrekintzarako prozesuen zaintza eta euskararen plaza gizarte zabalera eraman beharra defendatzen ditut besteak beste. • **Hitz gakoak:** *gizarte-mugimendua, aktibazioa, integritatea, balio-erantsia, egin-eragin-izan.*

Abstract. This article is adapted from a study for a meeting about activating Basque language enthusiasts in January, 2016 organized by Topagunea. In this article, which draws on the experience of the Basque language organization Topagunea, I will examine the keys to local or national success at attempts to activate the Basque language enthusiasts' movement. I employ three central concepts in this analysis of successful experiences: the attractiveness of DOING (the body), the importance of BRINGING ABOUT stimulating thoughts (the head) and the BEING that partakes of all this (the heart). For the complementarity of actions and dynamics at local and national levels, I have found Ken Wilber's theory suggestive for the study of the integrity of local movements and the added value that should be provided by the national level. In this regard, in addition to the objective perspective I also argue for other points including the need to attend to the subjective perspective, consider cooperative processes between individuals and entities, and project the Basque language scene onto society in general. • **Key words:** *social movement, activation, integrity, added value, do-bring about-be.*

2016ko urtarrilean “Euskaltzaleen aktibazioa XXI.mendean” leloa zeraman Topaldirako prestatutako lanaren moldaketa da jarraian aurkituko duzuna.

Izenburuari helduta hiru osagai gehi bat aletuko ditut lanean: arrakasta alde batetik, ikuspegi lokala eta nazionala bestetik eta hirugarrena, azken bien osagarritasuna. Gehi bat diot, izenburuan esan gabe doan aktibismoan kokatuz ekingo baitiot lanari.

1. AKTIBISMOAZ

Euskaltzaleen Topaguneko duela bost urte erabaki zuen bere sorrerako izpiritua berreskuratu eta gizarte mugimendu gisa bere burua indartzea. Mugimenduko euskaltzaleekin hiru urteko gogoeta prozesu modularen emaitzarako bat Oinarriparrak¹ txostena izan zen eta bertan, besteak beste, honakoa esaten genuen:

3.1.6. Gizarte mugimendu gara

Gizarte mugimenduek gutxienez bi ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

batetik, instituzioen eta eragile sozialen diskurtsoak auzitan jarri behar dituzte; bestetik, gizartea ilusionatzea eta parte-hartzailea izatea lortu behar dute.

Joxemi Zumalabe Fundazioko lagunek aktibismoa “gizarte mugimenduetan egiten den parte hartze politiko”² gisa ulertzen dute, talde antolatuei buruz gabiltzalarik.

Konforme nago parte hartze politikoa badela euskararen aldeko aktibismo antolatua. Era berean, instituzioen diskurtsoak auzitan jartzekotan eta gizartea ilusionatzekotan, euskaldunon komunitate osasuntsuago bat izateko eraldaketa soziala ekarri beharko luke horrek guztiak, eta ziurrenik, beharko ditugu gauza gehiago.

2. ARRAKASTAZ

Arrakasta definitzeko bi esaldi dakartza Harluxet hiztegiak:

- *Zerbaitek edo norbaitek jendearengandik jasotako harrera ona edo oniritzia.*
- *Egiteko, erabaki, gertaera-segida baten ondorio ona; nahi edo desiratzen dena lortzea.*

Harluxeten definizioak baliagarri zaizkit; helburua lortu izana eta jendearen harrera ona jaso izana, badira gako interesgarriak, bereziki herritarren aktibazioaz ari garelarik. Praktika onenen kontzeptuak

Konforme nago parte hartze politikoa badela euskararen aldeko aktibismo antolatua. Era berean, instituzioen diskurtsoak auzitan jartzekotan eta gizartea ilusionatzekotan, euskaldunon komunitate osasuntsuago bat izateko eraldaketa soziala ekarri beharko luke horrek guztiak.

**Soziolinguistika
Klusterak
HITZARGIAK
egitasmoaren
bidez Europako
praktika egokiak
batzeko lanean
dabil.**

hedapenaren ideia gehitzen du baina ez du jendearen harrera osagai gisa hartzen. Beraz, bi kontzeptuok baliatuko ditut nire lan honetan.

Hitzak hitz, arrakastatsu den hori identifikatzeko eta zabaltzeko ezin bestekotzat jo beharko genukeen baldintza egitasmoak ebaluagarriak izatean jarriko nuke fokoa.

Soziolinguistika Klusterra HITZARGIAK³ egitasmoaren bidez Europako praktika egokiak batzeko lanean dabil eta praktika on hauek identifikatzeko honako parametroak ebaluatzeko asmoa dago besteak beste:

- Komunitatea aktibatze gaitasuna
- Eraginkortasuna
- Malgutasuna (leku batetik bestera egokitu ahal izateko)
- Berritasuna
- Lankidetzak artikulatzeko gaitasuna
- Balioak hedatzeko gaitasuna
- ...

Uste dut arrakasta edo praktika onak neurtzeko **parametro interesgarriak** direla aipatutakoak, gurera ekartzeko modukoak eta egitasmo berriak diseinatzeko edota egitasmo arrakastatsuak identifikatu eta hedatzerako orduan begi bistatik ez galtzeko modukoak. Hauez gain, euskaltzaleen aktibazioa pizteko beharko ditugu adierazle gehiago. Ea ba hurrengo ataletan argi gehiago eman ahal dudan aktibazio sozialari begirako eragina ebaluatu ahal izateko.

3. IKUSPEGI LOKALA/NAZIONALA

Ikuspegi nazionala eta lokala uztartzeko bi norabide irudikatu genitzake boteprontoan: “herri batetan arrakastaz gauzatu den egitasmoa, nazio mailara hedatzea edo alderantziz, nazio mailan irudikatutako ekimena herrietara hedatzea.

Lehenengoari helduta, Julen Arexolaleibak ia mende laurden dela JAZTEN aldizkarian idatzi zuen pasarte bat ekarriko dut gogora.

“HERRI MAILAKO EKIMENAREN GARRANTZIAZ⁴

Herria, intimitatearen eta nazioaren bitartean kokatzen da eta bi funtzio hauen arteko bitartekaritza egiten du. Herri mailan egiten den ahalegin orok bi norabidetan eragiten du:

a) **barrurantz:** pertsonarengan, familian, lagun artean, lan munduan. Herri mailan euskaraz bizi ahal izateko zerbitzuak ugaritu ahala (komunikabideak, astialdia, euskarazko harreman-sareak...) gero eta errazago eta erakargarriago bihurtzen da euskaldun jokatu nahi izatea.

Herrietan gauzatu egiten dira hizkuntzaren funtziorik gehientsuenak: zerbitzu ofizialak, pribatuak, kulturalak, pertsonalak, etab. Guzti hauek euskaraz garatu ahal izateko bideak eraikitzen joatea da helburua.

b) **kanporantz:** nazio mailan euskararen normalizazioaren sujetua (komunitate linguistikoa) azaleratuko bada noizbait, herri euskaldun(du)en batuketa baten ondorioa izango da edo ez da izango. Nazio eta herri mailako dinamikak elkarren osagarri gisa ikusi barik, bada oraindik, kontrajarritzat aurkezteko gogorik daukanik. Gogoratu egin behar da, beraz, mesede txikia egiten duela nazio mailako edozein proiektuk baldin eta herrietan eta hiri-auzoetan isladarik ez badauka, baldin eta proiektu hori beste norbaitzuk egin behar dutena-luketena- esatera mugatzen baldin bada.“⁴

**Zertarako?
elkarte batek
jada ederto
asmatu duen
hori, beste
elkarteen esku
uzteko, hutsetik
asmatzen has ez
daitezen, energia
aurrezteko. Eta
bereziki,
eraginkorra
dena, ahalik eta
gehien hedatu
ahal izateko.**

Julenen ideia hauetatik lau azpimarra:

1. Herrietako mugimenduaren garrantzia
2. Nazio eta herri mailako dinamikak elkarren osagarritasunean landu beharra
3. Nazio mailako proiektuek herrietan eta hiri-auzoetan islada behar dutela. Eta, biak **ala biak uztartuta** jorratu beharra
4. mesede txikia egiten duela nazio mailako edozein proiektuk baldin eta... proiektu hori beste norbaitzuk egin behar dutena-luketena- esatera mugatzen baldin bada.

Esango nuke azken puntuan, herriaren eta nazioaren arteko elkarrizketa PROZESUAz ari dela. Naziotik txistua jotzeaz ez dugula asmatuko ekimen arrakastatsuak lortzen eta komunikazio hau ondo artikulatzen asko dugula jokoan. Prozesuaz hitz egingo dut geroxeago.

4. HERRIETAKO MUGIMENDUA HEDATUZ (HERRITIK NAZIORA)

I

Behetik gorako prozesu gisa irudika genezake hau, edo saretze gisa, horizontalean, azken aldiaren irudi borobil eta horizontalak boladan daude.

Irudiak irudi, esango nuke Topagunearen funtzio historikoetako bat horixe izan dela, tokiko praktika onak ahalik eta gehien hedatzea, hain zuzen ere.

**Euskaltzaleen
Mugimenduaren
baitan gure
herrietatik
Euskal Herrira
hedatu diren
egitasmo
"arrakastatsuen"
artean
makinatxo bat
aipatu genitzake.
Atzera begira,
hedapen
ikusgarriena izan
duten hiru
aipatuko ditut,
aspaldiko
egitasmoak eta
ezagunak
hirurak: Toki
aldizkariak,
Mintzapraktika
egitasmoak, eta
Euskara
Elkarteak.**

Horretarako nabarmentzen diren egitasmoei begiratu, elkarteei esperientzia arrakastatsuez galdetu, elkarteetako lagunak harremanetan jarri, egitasmo interesgarrienak identifikatu eta ebaluatu, elkartrukeak erraztu eta egitasmoon hedapenerako plataformak martxan jarri izan ditugu urte luzeetan zehar.

Zertarako? elkarte batek jada ederto asmatu duen hori, beste elkarteen esku uzteko, hutsetik asmatzen has ez daitezen, energia aurrezteko. Eta bereziki, eraginkorra dena, ahalik eta gehien hedatu ahal izateko.

Elkartrukerako prozesu honek funtzionatu izan digu eta besteak beste, izaera anitzeko topaldi, mintegi, eta elkartrukerako foroek horretarako ere balio izan digute sarri. Elkarrekin ikasteko eta elkarrekin harremanetan dinamika berriak sortzeko.

Euskaltzaleen Mugimenduaren baitan gure herrietatik Euskal Herrira hedatu diren egitasmo "arrakastatsuen" artean makinatxo bat aipatu genitzake. Atzera begira, hedapen ikusgarriena izan duten hiru aipatuko ditut, aspaldiko egitasmoak eta ezagunak hirurak: Toki aldizkariak, Mintzapraktika egitasmoak, eta Euskara Elkarteak. Hiru loraldion hasierak Topagunea federazio gisa eratu aurretik eman ziren eta osteko izan da federazioak hedapen eta garapen hau sustatzen erantsita-ko ahalegina. Noa banan banan:

- AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) 1983an sortu zenetik 100dik gora euskaltzaleen elkarte ditugu Euskal Herrian, gehientsuenak Euskaltzaleen Topagunean bilduta. Nola hedatu zen mugimendu hau? Bi bide nagusi aipatuko nituzke:

— Praktika arrakastatsuen ildotik. (**GORPUTZA-EGIN**). "Nik ere nahi dut aisialdia euskaraz" "Nik ere kulturgintza jorratuko dut euskaraz herrian". Eta ekinez, egitasmoen gorputza hedatu eta saretu zen.

— **Pentsamenduaren zabalkundetik: "Adorez eta Atseginez"** mintegiak (1989-1994) Txepetxen lana zabaltzeko eta "Euskaratik eraiki behar den diskurtsoa, euskararen lehentasunen mesedetan" eraikitzeke egin zen ahaleginetik sortu eta elikatu ziren hainbat eta hainbat elkarte. (**PENTSAMENDUA-ERAGIN**)

Gorputza eta burua izan genituen lagun eta BIHOTZA, noski euskaltzaleek jarri zuten. (**IZAN**). 20.000 bazkidetik gora ditu mugimenduak egun.

Hedapenaren arrakastaren atzetik 3 osagai beraz: gorputza, burua, bihotza (egin/eragin/izan)

- Arrasate Press 1988an sortu zutenetik segituan sortu ziren beste makinatxo bat aldizkari herriz herri.

— Hemen ere, hasierako produktu honek sarearen GORPUTZA hartu zuen.

— Eta orduan ere BURUA lagun izan zuen hedapen prozesuak, informazioa trukatzeko eta gogoetarako espazioak landu baitziren hasiera hasieratik: 1991ean egin ziren “Prensa lokalari buruzko I. ihardunaldiak. Arrasate: AED.” Gerora hartu zion lekukoa Topagunek 2003an “Euskarazko publizitatea eta Herri Komunikabideak” jardunaldiak (Bilbo) antolatu zituelarik eta ondoren TOKIKOMen eskutik etorri zen “Bi solairuko etxea”⁵ri buruzko euskarazko hedabideen gaineko jardunaldia.

— 2012tik TOKIKOM⁶ era batu dira tokiko komunikabide gehienak eta hedapena ez ezik, proiektu komunak (nazionalak?) hartzen ari dira gero eta gehiago lekua. Komunikabide gehiago eta hobeak argitaratzeko helburuaz bai, baina baita ere elkarrekin ERAGIN BIDE BERRIAK jorrazteko ere. Azken horren adibide izan da hainbat komunikabidek euskararen egunean argitaratutako erdarazko ale berezia⁷, gizarte sektore berri bati diskurtsoz betetako mezua kaleratu zuena. Ekimen honek herriari baino, hizkuntza komunitate osoari, nazioari, erantzun nahi izan ziola esango nuke. Orain arteko funtzioari baino, beste zerbaiti erantzun nahi izan ziola. Eta ekimen honen bidez TOKIKOMen baitako mugimenduaren BIHOTZA azaleratu ahal izan dela.



— Bukatzeko, Donostiako Bagera Elkarteak 1993an sortutako Mintzalagunaren hedapena azpimarratu nahiko nuke. Jada, 6.000 lagun batzen dira lagun taldetan astero astero euskara praktikatzen, 80 herri eta eskualdetan zehar. Sekulako aktibazioa eragin zuten Bagerako lagunak nahi gabe!

Euskaltzaleen mugimendua herritik sortu zen eta herriz herri hedatzen hasi ondoren sortu zen nazio mailako egitura, Topagunea. Herrietan eragitea izan da Topagunearen lehentasuna urte luzez. Nazio mailako plataformak antolatu ditugu bai, baina gehientsuenean herriaren mesedetan pentsatuak izan dira, elkarte berriak hedatzeko, txikiei laguntzeko, elkarteoi zerbitzu emateko.

5. NAZIOTIK HERRIRA

Euskaltzaleen mugimendua herritik sortu zen eta herriz herri hedatzen hasi ondoren sortu zen nazio mailako egitura, Topagunea⁸. Herrietan eragitea izan da Topagunearen lehentasuna urte luzez. Nazio mailako plataformak antolatu ditugu bai, baina gehientsuenean herriaren mesedetan pentsatuak izan dira, elkarte berriak hedatzeko, txikiei laguntzeko, elkarteoi zerbitzu emateko.

Eta ikuspegi hori osatu beharra azaleratu zen mugimenduaren baitan 2010ean abiatu genuen 3 urteko gogoeta prozesuan⁹. Bidegurutzte batetan topatu genuen gure burua, egin eta egin aritu izan gara, baina ERAGITEARI dagokionez zer bait galdu genuen bidean eta izana ere, hein batetan ahaztuta genuen.

Horra gogoeta prozesu honen ondorioetako batzuk:

- Nazioak ere behar du komunitate osoarentzat pentsatutako estrategia, baduela funtzio propioa betetzeko eta badela egiteko bat herriek bakarrik bete ezin dutena.
- GIZARTE MUGIMENDU gisa indartu beharra, honek eskatzen dituen osagaiak berreskuratuta eta mugimendu baten PERTENENTZIA elikatuta.
- Pentsamendua eta ideologia (DISKURTSOA) garatu beharra
- PLAZA hartu beharra.

Mugimenduaren kongresuen ostean, eta erabaki hauei helduta, bi ekimen berri jarri genituen martxan: TopaEgunaren lehen edizioa 2012an (Gunea Eguna izenarekin hasieran) eta Euskarak 365 ekimenaren bertsiio nazionala (aurrez Durangalderako sortu zuen ekimena Berbaro elkarteak) 2013an.

1. Topa Egunak ospakuntza, batasuna, pertenezia eta mugimendua elikatu nahi izan ditu. Topa Egunak, 4 ediziotan egindako saiokeraren ostean etena izango du, 2016an ez dugu antolatuko. Ez du funtzionatu, ez behintzat hasierako helburu potoloei erantzuteko (egokitu behar izan ditugu bidean helburuok).

Azkoitia (2012), Soraluze (2013), Derio (2014), Lasarte (2015), horiek izan dira kokalekuak. Topa Eguneak funtzionatu dute herri mailako ekintza gisa, herriko euskaltzaleak martxan jartzeko eta herri hauetan Euskaltzaleen Mugimenduaren berri emateko. Bertaratuek gozatu ditugu jaiok, baina ez mugimenduaren gorputza elkartuz, ezta gure baitako ospakuntza zabala egiteko, ez baitugu

lortu Euskal Herriko aktibista euskaltzaleak jaira erakartzerik. Kasurik onenean, eskualde dinamikak indartsu egon diren lekue-
tan (Soraluzen, Debarroko elkarrekin lankidetzan kasu), horixe
izan da indargune garrantzitsu bat, eta eskualdeetako energia bizi
izan dugu edizio hauetan.

Topa Egunak tokiko euskaltzaleen elkarrearen energiatik edan du
gehiago, ez mugimendutik. Justifikazioak bila genitzake, formula
ez zen ona, ez ditugu jai gehiago behar... Baina hortik gorako bi
ikusgai atera ditut nik hemendik:

- a. Eguna antolatzeko ideia partekatu genuenean (LANKETA PROZESUAN) ez zen entusiasmorik ikusi, ez bazen antolatzai-
leen aldetik, protagonista izango ziren elkarrean aldetik. Tema-
tu ginen eta ez da irten. Elkarrekin hobeto entzun beharra dau-
kagulakoan nago.
- b. Mugimenduaren pertenez sentimendu nahikorik ez
dugu oraindik, beraz, mugimendu izateko bokazio horretan
asko dugu egiteko.

Uste dut arrakastekin batera, ikusgai hobeak ateratzen direla
batzuetan porrotetatik. Topa Egunek eman dizkigute zenbait poz,
baina ez dute hasieran aurre ikusitako funtzioa bete.

2. Euskarak 365 ekimena, batasuna, mugimendua, mezua eta plaza
elikatzeko helburuak landu ditu.

- Kongresuko ondorioetatik eratorrita sortu zen, plaza hartze-
ko ideiatik tiraka.
- Euskararen nazioarteko egunaren desinstituzionalizazioa,
herritarrak protagonista ospakuntzan eta aldarrikapenean.
- Mezuak besteko garrantzia du kaleak: plaza hartzea nahi
dugu, euskaltzaleok batuz. Plaza + herriko eragileen arteko
hartu-emana eta elkarlana (ANTOLAKUNTZARAKO PROZE-
SUARI EMAN GENION GARRANTZIA).
- Berbaroren gonbiteari erantzunez zabaldu zen; kanpaina bi
urte lehenago sortu zuten beraiek.

Egindako 3 edizioen bilakaera ikusteko zenbait datu emango ditut.
2013an 31 elkarrekin parte hartzearekin hamar bat herritan egin ziren
kaleko ekitaldiak. Xume hasi zen, baina egindako plazako ekintzen
balorazioa ona izan zen. Lehen urtea izanik, ez genuen bestelako sek-
toretan eragin. 2014an, 34 herri eta eskualdeetako euskara elkarteak

**Uste dut
arrakastekin
batera, ikusgai
hobeak ateratzen
direla batzuetan
porrotetatik.
Topa Egunek
eman dizkigute
zenbait poz,
baina ez dute
hasieran aurre
ikusitako
funtzioa bete.**

hartu zuten parte eta ia 20 herritan identifikatu genituen kale ekintzak, horietako asko herriko euskalgintzak batera antolatuak. Hezkuntzako eragile askok eta hiru futbol taldek (Athletic, Erreal eta Eibar) bat egin zuten ekimenarekin eta herrietako plazan ez ezik, hainbat ikasketa zentroetan eta futbol zelaietan oihartzuna izan zuen ekimenak.

2015eko azken edizioan, Topagunearekin zuzenean koordinatzen ziren elkarteen parte hartzea aurreko urtearekiko egonkor mantendu zen. Beraz, elkarte sarearen parte hartzeari dagokionez, mugimenduko ZABALERAn 2014ko eragin berdina izan genuen. Edonola, askoz zabalkunde gehiago izan zuen, gure zuzeneko harremanetatik harantzago joan zen. Gure mugimenduko egituratatik at, eragile eta norbanako askoren atxikimendu espontaneoak izan genituen. *Transzenditu*, gainditu genuen, gure baitako eragina, eta galdu dugu eraginaren kontrola. Kale ekitaldiak asko hazi dira. Guk 20tik gora identifikatu ditugu, baina asko joan dira guk kontrolatu gabekoak. Parte hartzaile kopurua ere nabarmen igo zen. ZABALERAn berdin, baina SAKONERAN harago heldu gara. Sakonera parte hartzearen konpromiso eta ilusioan kokatuko nuke.

Horiek dira ekimenaren gorputza, zenbakiak eta datuak, hitz egin dezagun horren azpitik egon den prozesuaz:

- Hitzaldiaren hasieran aipatu ditut ekimen arrakastatsuak hedatzeko prozesuen inguruko zenbait gako eta horiek aplikatu ditut 365 ekimena antolatzerako orduan.
 - Ezertan hasi aurretik, elkarteei beraien esperientzia arrakastatsuei buruz **galdetu genien** eta horiek entzun eta jaso.
 - Horiek bazkideekin zonaldekako mintegietan partekatu genituen, lurraldez lurralde kontrasteak egina. Tartean Berbarok Euskarak 365 ekimena Topagunearen esku utzi zuen eta elkarteek ekimenarekin bat egitea erabaki zuten.
 - Kanpaina, mezua, plazako ekintzak...horiek guztiak partekatu genituen bazkideekin eta auzolanean eman genien forma. Mugimenduaren ekimena izateko elkarrizketa asko jarri behar izan genuen martxan.
 - Plazarako ekimen irekiak proposatu genituen, **moldagarriak, malguak, irekiak** eta bereziki *plazarako ekimenaren antolakuntza* prozesua zaintzeko, herriko eragilieekin batera antolatzeko gomendioa luzatu genuen Topagunetik.
 - Urtez urte elkarrekin landu dugu edizio berria eta ekimena zabalduz ez ezik, sakonduz joan da.

— Azpimarratuko nuke 365 ekimena zenbait herritan **elkartearen baitako jendearekin bakarrik** atera dela aurrera eta eragin maila batera heldu ahal izan da honela; **elkarte batzuk herriko euskalgintzarekin antolatu dute plazakoa** eta harago heldu dira. Elgoibarko Izarraren kasuan¹⁰ (eta beste elkarte batzuk ere), euskalgintzaz harago, herriko eragile guztiekin (edo ia guztiekin) bultzatu dute auzolana. Prozesu luzea eta neketsua izango zen ziurrenik, baina emaitza agerikoa izan da eta bueltan jasotakoa handia.

365 ekimena aurrera begira garatzeko bi erronka nagusi aipatuko nituzke:

1) **BURUA elikatzeari lotuta:** Ekitaldi folkloriko batetik harantzago, **ahots propioz hornitzea ekimena**, mezua berrituz eta sakonduz, aldarrikapen eta ospakizuna jantziz.

2) **GORPUTZARI begira berriz**, Euskaltzaleok kalea hartzeko eta protagonismoa hartzeko beharra gizarteratu eta saretze ahalik eta zabalena lortzeko PROZESUAN jartzea arreta. Uste dut orain artekoa baino esperientzia bizigarriagoak nahi baditugu, protagonista gehiago eta auzolan zabalagoa beharko dugula. Gure kontroletik kanpoko mugimendu lateral autogestionatu horietatik askoz gehiago behar dugula eta mugimenduan horiei ere leku egiten asmatu.

BIHOTZA aurreko bietan elikatuko delakoan nago. Bizipen eta ideia bizigarrien elikadurak lagunduta.

Herritarren aktibazioaz gogoeta dezente ditugu mahai gainean azken aldian. Patxi Baztarrikak, “Eta hemendik aurrera zer?” bere txostenean etorkizunerako erronka nagusia herritarren nahian kokatzen du. Mikel Irizarrek euskaltzaleen aktibazioan jarrita dauka baita ere Gipuzkoako Foru Aldundirako lehentasunetan foko nagusia. Euskaltzale norbanakoen nahia dugu alde batetik eta bestetik eragileen aktibazio kolektiboa. Hau guztia nola elikatzen da? Manex Agirrek Argian eskainitako elkarrizketan¹¹ oso gako garrantzitsuak aipatzen ditu:

Gure euskara batzordeak euskararen jarraipenerako batzordeak izan dira, baina horrela ez da jendea aktibatzea lortzen, desaktibatzea baizik. Power pointak, euskara planaren betetze mailak eta inkestak... guztiz metodologia teknikoak dira, ezinbestekoak euskara teknikariarentzat, baina ez herritarrentzat: herritarrak besterik behar du, bileretara etorri, pozik lan egin, lagundu...

(...)Aktibazioari dagokionez, Jaurilaritzari eskatuko nioke, adibidez, kanpaina orokor eta mezu espantsiboen bidea utzi eta lan intentsiboetan indarrak jartzea.

Herritarren aktibazioaz gogoeta dezente ditugu mahai gainean azken aldian. Patxi Baztarrikak, "Eta hemendik aurrera zer?" bere txostenean etorkizunerako erronka nagusia herritarren nahian kokatzen du. Mikel Irizarrek euskaltzaleen aktibazioan jarrita dauka baita ere Gipuzkoako Foru Aldundirako lehentasunetan foko nagusia. Euskaltzale norbanakoen nahia dugu alde batetik eta bestetik eragileen aktibazio kolektiboa.

**HOLISTIKARI
lotuta, Ken
Wilberren lana
oso interesgarria
iruditzen zait
gertatzen zaiguna
ulertzeko eta
aurrera begira
zenbait gako
kontuan
hartzeko.**

(...) Hedadura aldetik, botere publikoek dute baliabiderik handiena: egin dezala aktibatze lana gizarte mugimenduekin batera, eta, epe luzera, har dezala protagonista gizarteak berak, erakunde publikoak bigarren mailan geratuta, gizarteari laguntzen eta sostengua ematen. Historikoki kontrakoa egin du.

Euskaltzaleen aktibazioa indartzea eragile sozial zein instituzionalen helburu komuna dela entzuten dugu han eta hemen, baina gogoeta sakona egin beharra dago helburu hau lortzeko instituzioei eta gizarte eragileei dagozkien funtzioak argitu eta norabide berean lidergo partekatatu horiek antolatzeke. Zoru komun bat ari da eraikitzen helburuei dagokienez, antolamenduan eta botere harremanen berrikusketan ikusten dut nik zeregina orain.

6. OSAGARRITASUNA (PROZESUAREKIN LOTUTA)

I
Osagarritasuna, artikulazioa, uztartzea... “Biak ala biak uzartu behar dira” zioen Julenek. Eta horrek elkarrekiko (herri/nazioaren arteko) elkarrizketa prozesua eskatzen du.

Interesgarria iruditzen zait osagarritasunaren kontu hau ikuspegi holistikotik aztertzea. Txepetxek HOLOLINGUISTIKA garatu zuen zientzia anitzetatik hedanda HIZKUNTZEN berreskurapenerako teoria integral eta oso bat proposatuz.

HOLISTIKARI lotuta, Ken Wilberren lana¹² oso interesgarria iruditzen zait gertatzen zaiguna ulertzeko eta aurrera begira zenbait gako kontuan hartzeko.

Errealitatearen irakurketa aberatsa egiten du zientziaren disziplina ezberdinak harremanetan jarrita eta niri balio izan dit gure mugimenduen baitako zenbait dinamika ulertu ahal izateko. Betaurreko berri hauekin begiratuko diot gure errealitateari uzten badidazue.

Labur labur ekarriko dut hona Wilberrek proposatzen dituen zenbait kontzeptu eta printzipio eta lotuko ditut gure mugimenduekin.

Ikuspegi HOLISTIKOAREN baitan HOLOIEN izaera eta ezaugarri batzuk azalduko ditut:

HOLOIA:

- Holo bat era berean OSOTASUN bat da eta ZERBAITEN PARTE bat da.
- SISTEMA bakoitza HOLOI bat kontsidera dezakegu, dela partikula subatomiko bat ala dela planeta bat edo dela gizarte sistema bat.

Errealitateko edozein HOLOI (esan dezagun izaki/sistema/entitate-
ren) bilakaera eta garapen prozesuak besteak beste honako printzipio-
etan oinarritzen direla dio Wilberrek.

Guztira 20 printzipio dira baina nik 4 lapurtu dizkiot lan honetarako:

1. Edozein entitate osotasun bat da eta beste osotasun baten parte da. Eta hori beti horrela izango da, gorantza eta beherantza. Adibiderako, atomo batek badu osotasuna, baina molekula baten parte da, azken hau ere entitate oso bat da, baina molekulek zelulak osatzen dituzte, eta segi gora eta segi behera atomoak zatitzen (protioiak, elektroiak, neutroiak), zelulekin ehunak sortzen eta organoak eta abar unibertsoaren infinitoraino.

Euskaltzaleen elkarteak, banan banan, osatasunak dira eta Euskaltzaleen Mugimenduaren parte dira eta gure mugimendua euskalgintzaren parte da eta hau gizartearen parte eta segi gora, eta segi behera.

2. Holo edo entitate bakoitzak 4 gaitasun oinarritzko ditu: **indibidualitatea, komunioa (elkartzeko joera), autodisoluzioa eta traszendentzia (bere burua gainditzeko joera).**

Euskaltzaleen elkarten indibidualitatea oso markatua dela esango nuke, beraien artean elkartzeko joera dute, traszendentzia (garapen maila altuago batetara heltzeko gaitasuna dute) lortuz gero zerbait berria (sorkuntza/berrikuntza) egingo dute, bestela beraien buruaz beste egingo dute.

3. Holo edo entitate bakoitzak azaleratu eta traszenditzeko (BERE BURUA GAINDITZEKO) gaitasuna dauka baina beti barnebilduko ditu bere aurrekoak (barnebiltzen dituen HOLOI txikiagoak). Horrek esan nahi du aurreko mailan kokatzen diren ENTITATEEn osotasuna eta integritatea errespetatu behar dituela. **Entitate garatuago hori ere sunsituko da bere baitako azpi-entitateak desagertzen badira.**

Gurera ekarrita, tokiko euskaltzaleen sarea (federazioa) izatetik mugimendu izaterako prozesuan bere burua gainditzeko, **traszenditzeko nahi bat dago, zerbait garatuagoa, elkarten batura baino zerbait osoagoa izateko nahi bat** eta prozesu horren hasieran gaudede. Oraindik mugimenduaren garapen bidea ideia mailan dugu formulatuta eta gorputza berriz, poliki poliki abiatzen doa. Burua handi, gorputza txiki eta bihotzak oraindik ere ez nahikoa uztartuta, **gorputza plazan gehiago mugitu eta pertenezaren sentimendua elikatu beharra dagoela esango nuke.**

Mugimendu TRANSago bat behar ote dugun nago? Nola GAINDITU gure burua?

**Euskaltzaleen
elkarteak, banan
banan,
osatasunak dira
eta Euskaltzaleen
Mugimenduaren
parte dira eta
gure
mugimendua
euskalgintzaren
parte da eta hau
gizartearen parte
eta segi gora, eta
segi behera.**

Galdera hauei erantzunez bukatuko dut gaurko lana. Tokiko elkarten sareak mugimendu sozial gisa indartu nahi badu eta komunitate linguistikoarentzat erreferentzia indartsuagoa izan nahi badu, nago badi-tugula hainbat irakaspen kontuan hartzeko:

Horra ideia batzuk gogoetarako. Betaurreko berriak jantzi baditut ere, nago gure pentsalariak hainbatetan esandakoak eta gure azken gogoe-tatan jasotakoak badaudela hemen. Koherentzia hori aurkitu izana gai-nera pozgarria suertatu zait:

1. Tokian tokian orain arte egin denari eutsi behar zaio, integritate hau zaintzea eta elikatzea gure mugimenduaren muinean jarraitzen dute. Nazioari begira jarri aurretik tokian tokian elkarte bakoitzak, euskaltzale antolatuen talde bakoitzak, badu bere burua gainditze-ko lehentasunezko beste eremu bat: herriko komunitate osoarekin lan egitekoa, herrietako eragile anitzekin batera lan egin eta haueta-ko bakoitzak bere ardura har dezan errazte lana bideratzekoa.
2. TOKIKO/NAZIOKO dikotomiaz harago HIZKUNTZA KOMU-NITATEAREN beharrak mugimendu bezala pentsatu behar ditugu eta maila GLOKALean EKIN. Tokikoak eta nazio mailakoa dira gure EGITURAK, baina gure estrategiek bi eremuak barnebiltzeko gai izan behar dute. Pentsatu naziotik pentsatu herritik, biak ala biak uztartuta.
3. NAZIO mailako EUSKALTZALEEN MUGIMENDUAK, harago joateko balio erantsiak sortu eta probokatu beharko dituelakoan nago. Orain arteko dinamikak gainditzeko hiru eremu nagusi azpi-marratuko ditut:

1. Gure ekimen eta dinamiken alde objetiboarekin batera, alde subjektiboa elikatzeke jardunak aurre ikusi eta ebaluatzea ezinbestekoa izango da: Gorputzaren planoan (ekintza, perfor-matibitatea, aktibismoa...), buruaren planoan (pentsamendua, diskurtsoa) eta bihotzaren planoan (nahia, pertenezia, emo-zioa) eragiteko moduko ekimenak behar ditugu. Zein kontzient-ziatik bultzatzen ditugu ekimenak? Zer kontzientzia berri eli-katzen dute? Zein emozio uzten dute herritarrengan? ...eta antolatzaileengan?

2. Elkarrekiko prozesuak zaindu behar ditutu: Elkar entzun, elkarriketak areagotu, pertsonak zaindu, kolektiboki ilusiona-tu, boterea banatu, lidergoak partekatu... Sarrionandiak bile-ren aldeko aldarria egiten du eta nago, gurean "bileritis"-ak ospe handia ez badauka ere ezinbestean egin beharko ditugula

askoz bilera gehiago eta askoz jende anitz eta gehiagorekin aurrera egingo badugu. Horra Sarrionandiaren hitzak¹³:

Batzuek pentsatuko duzue, beharbada, infantilismo bat dela bileraren edo demokrazia sinple eta primitiboaren ideia hau. Nire ustez ez, bilera gutxiestetik hasi eta nahi ez duzun guztia onartu beharrean aurkituko zara.

Niretzat, jendearen erabakimena ez errespetatzea kalte politiko guztien abiapuntua da. (...) Gutxiesten baduzu bilera eta jendearen erabakimena, apur apurka erakunde publikoak jendearen iritziaz aparte hasiko dira funtzionatzen eta laster jendearen kontra eta, sozialismoa eraiki nahi baduzu ere, oharkabean, jendearen kontrako zerbait aterako zaizu, eta bakea nahi duzuenean gerra baizik ez duzu izango.

Ahots ahalik eta gehienak entzutea dagokigu eta euskara berreskuratzeko prozesua aniztasun ahalik eta handiena partaide eginda bideratzea funtsezkoa izango da etorkizunean. Instituzioen eta gizarte eragileen arteko uztarketa, euskalgintzaz haragoko gizarte erakundeen inplikazioa, euskaldun eta erdaldunak prozesuaren protagonista eta arduradun egitea...

3. Plaza hartu: gure egiturak gainditu, gure elkarteak, plazara atera, saretu, kontrola galdu, ireki, permeableago egin, auzolanean aritu, gizartearen ardura hartzea eta konpromisoa erraztu, autogestioa elikatu... Euskalgintzak albotik eragin eta gizarteak har dezala protagonismoa, hortxe dugu gakoa. Gizartearen ordezkariak ahalik eta zabalarentzat barnebiltzaileak izango diren euskarararen aldeko aktibismoak behar dugu, gizartearen alboetan kokatzen diren horrenbeste herritar zapalduen kolektiboak bereziki aintzakotzat hartuta eta lankide izanda.

Euskaltzaleen aktibazioa indartzeko errealtate konplexuari egin beharko diogu aurre eta konplexutasun horri begirako estrategia eta prozesu berriak abiatzea funtsezkoa izango da arrakasta lortzeko. Tokiko eta nazio mailako euskalgintza bereizteak gero eta zentzu gutxiago duelakoa nago, gizarte zabala bustitzeko estrategia GLOKAL partekatuetarako giltza berriak adostu beharrean gaude eta horretarako lankidetzaren dinamika berriak abiatu. ●

Ahots ahalik eta gehienak entzutea dagokigu eta euskara berreskuratzeko prozesua aniztasun ahalik eta handiena partaide eginda bideratzea funtsezkoa izango da etorkizunean. Instituzioen eta gizarte eragileen arteko uztarketa, euskalgintzaz haragoko gizarte erakundeen inplikazioa, euskaldun eta erdaldunak prozesuaren protagonista eta arduradun egitea...

OHARRAK

1. "Euskaldunon Elkarten Oinarriparak" 16. orrialdea
2. Euskaltzaleen Topagunearen XIII. Topaldia: Euskaltzaleen aktibazioa XXI. mendean.
3. Hitzargiak: Soziolinguistika Klusterrak DSS2016rekin lankidetzan garatutako ekimena, Europan biziberritze-prozesuan murgilduta dauden hizkuntza- eta hiztun-komunitateen jardunbide egokiak identifikatu eta hauen arteko harremanak sortzeko.
4. Julen Arexolaleiba-JAZTEN- 1993 Herrietako Euskara Elkarteei Buruzko Jardunaldiak, 64. orrialdea.
5. "Euskal hedabideen etxea tokikoen ikuspegitik", TOKIKOM. Gogoeta taldea, 2013ko udazkena. http://www.hekimen.eus/wp-content/uploads/2014/03/EUSKAL_HEDABIDEEN_ETXEA.pdf
6. TOKIKOM: 24 aldizkari, 4 telebista, 6 irrati, 24 agerkari digital (62 komunikabide guttira).
7. <http://goiena.eus/debagoiena/1449072267448>
8. Topagunea 1997an eratu zen
9. Euskaltzaleen Elkarten Mugimenduaren diagnosia (Topagunea, jardunaldiak -2010eko otsaila), Oinarriparak (Topagunea, XXI. Mendeko Euskaldunon Elkarteak-2011ko otsaila), Federaziotik Mugimendura, Eraldabideak (Topagunea, 2012ko azaroa)
10. Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko herria euskaraen egunean: <https://www.youtube.com/watch?v=d7HE8YBy3ts>
11. ARGIA, 2016ko apirilaren 17a: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2503/manex-agirre-zuiako-kuadrillako-euskara-teknikaria>
12. "Breve historia de todas las cosas", Ken Wilber
13. "Gure politikaren bilakaeraz inpresio eta iritzi batzuk", Joseba Sarrionandia. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-titulurako prestatua (2015-2-21)